



Xabier Mendiguren Elizegi

◆ IDAZLEA

Albo-kalte txiki bat

JOAN MARI TORREALDAIK, 1975ean, soziologiako bere doktore-tesia egiteko, orduko euskal idazleak hartu zituen ikergai, eta, haien artean egindako inkesta zabal batean oinarrituta, ikerketa luze eta sakon bat burutu zuen, handik bi urtera, beste eduki batzuk ere gehituta eta Elizegi anaiei argazki-galeria guztiz inportante batekin, liburu mardul gisa plazaratu zena: *Euskal idazleak, gaur*. Luxuzko edizioa izan zen, Jakin taldeak gauzatu eta Lankide Aurrezkiak plazaratua, garai hartan Laboraleko marketin-buru zen Luis Iriondoren izaera baikor eta gartsuari esker, besteak beste.

1995ean, 20 urte igarota, euskal idazleen panorama dezente aldatuta zegoela susmaturik eta susmo hori datuetan ere egiaztatu nahirik, aurreko inkesta berri, momentuko idazleen artean banatu, eta handik ateratako ondorioekin liburukote berri bat idatzi zuen Torrealdaik berak: *Euskal kultura gaur*, Jakin eta Laboralarekin batean Elkar fundazioak kaleratua 1997an. Guztiz bestelakoak ageri dira garaiko kezka, eztabaidak, generoak (kazetariak eta saiogileak ia guztiz desagertu ziren idazle aipatuena artean, fikziogileen mesedetan), baita argazkietako aurpegiak ere, Aitor Bayok egina oraingoan.

2015 izango da datorren urtean. Beste 20 urte igaro dira, ia-ia. Aukera bikaina idazle-jendearen argazki-dinamiko horrekin jarraitzeko, gure zimurak nolakoak diren ikusteko

2015 izango da datorren urtean. Beste 20 urte igaro dira, ia-ia. Aukera bikaina idazle-jendearen argazki-dinamiko horrekin jarraitzeko, gure zimurak nolakoak diren ikusteko, urteotako aldaketa sozial, politiko, ekonomiko eta teknologikoen ofizio zahar honi nola eragin dioten galdetzeko, androzentrisismo erabatekoa nola irauliz doan konstatatzeko, lankideen arteko hautuetan *top-ten* gustukoena nork osatuko duen kuxkuxetzeko...

Tamalez, ez da halakork izango. Ez Torrealdaik eginda behintzat. Berrari galdetuta esan digu gaiari buruz zituen paper guztiak Guardia Zibila eraman zizkiola, *Egunkariaren* kontrako operazioan. Hori, orain dela ia hamabi urte gertatu zen; baina orduetik hona gai horri loturiko auziak bizirik jarraitu du epaitegietan, besteak beste Torrealdairen beraren kontrako zigor mehatxu eta guzti. Garbi dago ez dela egoerarik onena, 70 urte bete eta gero, hirugarren ikerketa monumental

bati ekiteko. Espainiar zapalkuntzak euskal kulturari ekarri dion beste kalte bat; oraingo hau ez horren handia, agian, baina kaltea azken batean.

Ba al da zuen artean soziologo gazte eta kementsurik, halako proiektu bati heldu nahi dionik? ■



Kilikatu Kultura, klikatu euskaraz!

kulturaGernikan.net
Kultura batzordearen ataria

www.gernika-lumo-
euskaraz.com

gernika-lumo
euskaraz

GERNIKA
LUMO
gure euskaraz